Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

*Maria Luisa Alberdi Arroitajauregi*

*Bergara, Gipuzkoa (1925-1999)*



Aurkibidea

## Biografia



Iurretako Oromiño auzoan jaio zen, nahiz eta oso txikitatik Mañarian bizi. 25 urte zituela ezkondu zen eta Ubera auzoko Egurbideaundi baserrira joan zen bizitzera. 5 seme-alaba izan zituen. Baserriko lanak egin eta plazan barazkiak saltzen zituen. 1983an kanta zaharrak batzeko bi grabazio egin zitzaizkion eta honako kantak abestu zituen, besteak beste: "Begire nago begire", "Antontxu zera zu", "Abadiño San Blasetan"... Bi grabazio horietako batean Mertxe Olabe eta Bittori Aranburu ere azaltzen dira eta bestean Carmen Gaztelu.

## Zintak

### BER-034

- **Proiektua**: Bergara inguruko kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Data**: 1983-01-01
- **Iraupena**: 27 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea**: Urkiola, Argiñe

### BER-035

- **Proiektua**: Bergara inguruko kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Data**: 1983-01-01
- **Iraupena**: 47 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Urkiola, Argiñe

## Pasarteak

### 1. "Begire nago begire", Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-034/002
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:00:25. **Bukatu**: 00:01:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

**Laburpena**:
Maria Luisa Alberdik "Begire nago begire" kanta abesten du.

**Transkripzioa**
Begire nago, begire
Kamino bide gorrire.
Noiz etorriko ete da
nere maitia herrire?
Nere maitia herrire.

Nere nobiaren ama,
asto baten jabe dana,
astoak ekarriko [dotso] (biz)
etxian bihar dan dana.

Umia dago pozuan
[amoretxo] bat besuan
Etxian zer jan ez deuko
manteniduten auzuan
Etxian zer jan ez dueko
manteniduten auzuan.

## 2. "Antontxu, Antontxu..." kanta, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-034/003
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:01:16. **Bukatu**: 00:01:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena**:
<p>"Antontxu, Antontxu zera zu" kanta abesten du Maria Luisa Alberdik.</p>

**Transkripzioa**
Antontxu, Antontxu zera zu
kuartillo t´erdigaittik ohia saldu dozu
Ama datorrenian, nian
Aitta datorrenian, nian
etxetik kanpora juan biharko dozu.

Antontxu, Antontxu zera zu,
neska txiki honekin ibiltzen zera zu
Aita datorrenian, nian
Ama datorrenian, nian
etxetik kanpora juan biharko dozu.

## 3. "Abadiño San Blasetan" kopla Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-034/005
- **Iraupena**: 0:00:23. **Hasi**: 00:02:08. **Bukatu**: 00:02:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

**Laburpena**:
<p>"Abadiño San Blasetan" kopla abesten du Maria Luisa Alberdik.</p>

**Transkripzioa**
Abadiño San Blasetan,
neska zaharrak bentanetan
mutil zaharrak engaiñetan
Abadiño San Blasetan.

Begire nago, begire
Kamino bide barrire.
Noiz etorriko ete dan
nere maitia herrire.

## 4. "Santa Ageda Ageda" kanta, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-034/007
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:05:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

**Laburpena**:
<p>"Santa Ageda Ageda" Santa Ageda eguneko kanta ezaguna abesten du Maria Luisa Alberdik.</p>

**Transkripzioa**
Santai Agedai, Ageda,
bixer da Santai Ageda
bihar da Santai Ageda baiña
gaur haren bezpera eguna.

Santa martiri maitia
dago errukiz betia,
berak alkanzatu daiuskula
osasuna ta bakia.

Libertadia eskatzen diou
etxeko printzipalari,
santai Agedaren alabantzak
kantatutzera nua ni.

Grazia diot ipiñi
santa honekin batian,
urte ontxo bat pasau dezala
osasuna ta bakian.

Santa martiri maitia
dago errukiz betia,
santa [honeri] eskatzen diogu
osasuna ta bakia.

Ateburuan aizkora
[bixer] kantarik asko da
emoixu limosnatxo bat eta
[adios] hurrengo atera.

Erantzuten jakonak e badia
kantarixe da motela,
igezko urdaixa badauket baiña
aiba aurtenguan atala.

Hortxe bidian agiri gendun
ez zala hiru arroa
etxian franko ibilli barik
oingoak [ados zirala].

## 5. Gabonetako kantak, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-034/009
- **Iraupena**: 0:00:23. **Hasi**: 00:05:46. **Bukatu**: 00:06:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

**Laburpena**:
<p>Gabonetako kantak abesten ditu Maria Luisa Alberdik gizonezko baten laguntzaz: "Urtebarri barri" eta "Aingeruak gara".</p>

## 6. "Patxi zergaitik zabiz" bertsoak, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-035/029
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:20:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

**Laburpena**:
"Patxi zergaitik zabiz" hasten diren bertsoak abesten ditu Maria Luisa Alberdik.

## 7. "Voy a cantar un caso", euskara eta gaztelania nahasten dituen kanta

- **Erref**: BER-035/031
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:22:38. **Bukatu**: 00:25:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena**:
<p>Euskara eta erdara nahasten dituen "Voy a cantar un caso" kanta besten du Maria Luisa Alberdik.</p>

## 8. Kanta batzuk norekin eta zelan ikasi zituen

- **Erref**: BER-035/032
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:25:28. **Bukatu**: 00:26:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
<p>Kanta batzuk norekin eta zelan ikasi zituen.</p>

## 9. Maria Luisa jaiotzez Orominokoa (Iurreta)

- **Erref**: BER-035/033
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:26:28. **Bukatu**: 00:29:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena**:
Maria Luisa jaiotzez Iurretako Oromiño auzokoa da, nahiz eta oso txikia zela Mañarira joan bizitzera. Iurreta terrenoz handia dela komentatzen dute.

## 10. "Barre eragin behar deu" bertsoak, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-035/034
- **Iraupena**: 0:04:14. **Hasi**: 00:29:14. **Bukatu**: 00:33:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

**Laburpena**:
"Barre eragin behar deu" antzinako bertsoak abesten ditu Maria Luisa Alberdik.

## 11. "Joxepa Antoni" kanta, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-035/038
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:39:43. **Bukatu**: 00:40:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena**:
<p>"Joxepa Antoni" antzinako kanta abesten du Maria Luisa Alberdik.</p>

## 12. Gerra sasoiko gorabeherak

- **Erref**: BER-035/042
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:42:40. **Bukatu**: 00:43:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena**:
Gerra sasoian 11 urte zituen. Euskaraz egitea debekatuta zegoen eta beraiek erdararik jakin ez.

## 13. "Hogeta laugarrena" gabon kopla, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Erref**: BER-035/045
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:45:36. **Bukatu**: 00:46:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

**Laburpena**:
<p>"Hogeta laugarrena" gabonetako antzinako kopla abesten du Maria Luisa Alberdik.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2025-11-17*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com